

AROA euskara sustatzeko plan estrategikoa

Andoaingo Udaleko Udabatzak, Osoko Bilkuran batzartuta, 2020ko ekainaren 25ean, aho batez, onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020-2025) dokumentua. Bertan jasotzen ziren hainbat helburu estrategiko eta jarduera esparru: euskararen jabeakuntza (familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatze eta etorri berriak eta kulturartekotasuna), euskararen erabilera (administrazioa, arlo sozio-ekonomikoa eta aisia eta kirola), euskararen elikadura (kulturgintza, euskararen corpusa eta komunikazioa) eta zehar-lerroak (sentiberatzea, motibazioa eta aktibazioa eta kanpo proiektzioa). Era berean, helburu horiek betetzeko hainbat ekintza jasotzen ziren hasierako dokumentuan, bost urte hauetan garatzen joan direnak eta arrakasta handiago edo txikiagoa izan dutenak

Pasa den urtean amaitu zen planaren epea eta urte honetan plan berri baten diseinuari heldu behar diogu. Horretarako egindakoaren balorazioa egiten ari gara eta Eusko Jaurlaritzak sorturiko euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduztzeko marko estrategikoari, AROA deiturikoari, jarraituko diogu plan berria sortzeko. Planak helburua du XXI. mendearen joera globalen aurrean, euskararen gutxiagotasun egoerari aurre egitea, eta indarberritze prozesuak etenik gabe jarraitzea. Euskarak bizirik aurrera egin dezan, ezinbestekoa izango da hiztun aktiboak lortu eta ugartzea. Euskaraz eroso aritzeko gune pribilegiatuak irabaziko dira horrela: etxea, kalea, eskola, aisialdia eta kirola, lan esparrua, osasun eta zaintza esparrua, ingurune digitala... Euskararen ezagutza kopuruz gero eta handiagoa den garai honetan, euskara erabiltzen dugun hiztun kopurua igotzea da erronka, eta horrekin batera, komunitatea handitzea eta sendotzea.

Andoaingo Udalak Elhuyar enpresa izango du bidelagun datozen hilabeteotan plan honi forma emateko, baina herrian euskarak bizi duen egoera hobeto ezagutzeko funtsezkoa da herritarrei ahotsa ematea. Horretarako, pasa den astean galdetegi zabaldu genuen herritarren artean, osa dezaten. Galdetegi anonimoa eta erraza da, apenas 5 minutu eskatuko duena. Ahalik eta erantzun gehien nahi genituzke eskuratu, horiek emango baitigute herriaren irudi erreala.

Galdetegiez gain hainbat kolektibotako pertsonekin ere izango ditu Elhuyarrek elkarrizketak. Horien bidez gertutik nahi ditugu ezagutu herritar horiek euskararekiko dituzten bizipenak, iritziak, kezak, proposamenak...

Pieza horiek guztiak bilduta, Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren asmoa da udazken hasierako plan berria onartuta izatea eta prest ibilbideari ekiteko.

Beraz, animatu eta lagun iezaguzue Andoaingo Euskararen mapa osatzen honako galdetegiaren bidez: https://labur.eus/AROA_Andoain2026.

Andoain, 2026ko martxoaren 23an

Udaleko Euskara Zerbitzua



andoa**INDARRA**
euskaraz